

AOB

ARANTZAZU: TOKI SAKRATUA.

BADU ERAKARMENIK

a) Kanpo aldetik:

Eliza modernu bat
Artista handien obrak
Paisaia zoragarria
Mendietara bideak
Atsegin, atseden, harridura, zirrara estetikoa.

b) Barru aldetik:

Andre Mariaren itzala bizi du
Jaungoikoarenaganako bide da
Otoitzera deia
Sakamentuetara deia
Sakamentuen ospakuntza tokia.

Kanpo aldeak ez dio ezer kentzen barru aldeari,
aitzitik giroa, ingurua, sakonetik ezagutzeko nahia ematen dio.
Nolabait barru aldearen signo da kanpo aldea.

OTEITZAREN OBRAREkin-eta

kanpo aldetiko erakarmena gehitu egin daiteke: Atsegin, atseden, harridura, zirrara estetikoan sentsazio bideak ugaldu-ala.

OTEITZAREN-ETA obra plazoleta azpian dago

Museora bidea frontoi zaharren azpitik doa

Musika gozo bat entzuten da bidean

Gizonaren barruko hariei ukitzen die

Hortarako dagoen fraile batek gaitu gidatzen, bide lagun dugu.

Ez du presarik, jendearen galderai erantzunez dihoa

Bidearen luzeak obraren espektazioa gehitzen du

Heldu gara. Eliza bat adinako nabe batetara heldu gara

Bi eta hiru nabe direla dakusagu: zabalak eta oso altuak. Hiru nabe zoragarri

Jorjeren obra ageri da. Ongi banatua dago

Fraileak esplikatzen digu

Audiobisualei eskainita dago nabeetako bat.

Bestea Arantzazuko prehistoria, historia, topografia, Arantzazuko fraileek dituzten mixio-lurrei eta haietako agerpenei eta abarri eskainia

Frailea –ez omen da apaiz– begibistan dugun guztiz ari da

Audiobisualei eskainitako aretoan edotariko hitzaldiak ere ematen omen dira

ARTEAREN KONTENPLAZIOAK, HISTORIAKO BERRIAK, FRAILEEN BIZIMODUA ETA EKINTZA JAKITEAK, ONDU EGITEN DITU GURE BERRUAK.

Fraileek ez omen dute museo honen ardura espirituala baizik; gainetikoa Euskal Gobernuak hortarako izendatu dituen zaintzaileen esku omen dago

Jorjeren obra zein kondiziotan-edo etorri zenik ez diogu fraileari galdu. Bainak badakigu Jorje beraren desiorik biziena, bere obra Arantzazun uztea izan zen, eta Arantzazun dago

Arantzazu espiritualitate zentroa da. Hori mundu guztiak daki, baina bereziki Frantziskotar Probintziak.

Horregatik hornitzen du Arantzazu ganorazko frailez, kultoa debotki eta liturjiazko edertasun guztiz ospatuko duen frailez, arimen eskabideei adi biziko diren frailez

Arantzazu punto turistikoa ere bada mundu guztiak dakienez.

Arantzazu zentro kulturala ere bada (erlijiozkoa lehendabizi) bere museoari esker, batez ere.

Arantzazura datorren jendeak zabalik du eliza, zabalik museoa

Denentzat du espiritu-ogia: Sakramentuak eta dotrina arimentzat, museoa kultura zaleentzat.

Arantzazuk espiritu zaleago egin darama gizona, espiritu gauzentzat sentikorragoa

Arantzazuk handikiro bizi ditu espiritu balioak, handikiro ditu potentziatzen.

Espirituzko urduritasunik bizi dutenek badute nora jo. Bokazioz kezkatuek badute nora jo.

Bere baitan duela bere apostoladu helburua ikusi du Arantzazuk, eta hortan dira, bere burua fraile santu eta argiz hornituz, bere “argi izateak” inolako motel aldirik ezagutu ez dezan.

Jendeari kasu egiteko fraileak bizi dira hemen. Badago museoa erakusten duena, bokazioz kezkatuei laguntzeko bizi dena, kultoa atenditzeko bizi direnak-eta.

Arantzazu dinamika bizkor baten bizi da materialismoan murgildutako munduan

espiritu balioak etengabe eta handikiro potentziatuz.